BAIONA - ANGELU - BIARRITZ

# Mintza Lasai #7

2018
Sept. ★ Iraila

# PRENTSA TXOSTENA
# DOSSIER DE PRESSE



## BERRITASUNA EKARTZEN

Aurten, leku berezi batean aurkeztu nahi izan dizuegu BAB-ko euskararen egunen 7. edizioa.

Hemen, TOO LATE ESCAPE GAME-en gaude. Berritasuna ekartzen lehena izan da; izan ere, euskarazko ihesbide jokoak eskaintzen ditu!

Ihesbide joko batean, jokalariek elkarlanean ari izan behar dute; *game master* baten aholkuei esker, denbora jakin batean gelatik ateratzea lortu behar dute.

Mintzalasai denboran, lehen aldiz, aktibitate hau euskaraz goza daiteke, eta, gainera, irailetik goiti ere izen-emateen arabera mantenduko den eskaintza da.

3 osagai horiek Mintzalasa dinamikairekin bat datoz:

- **Berrikuntza:** euskarazko aktibitate bereziak, hiriko giroan kokatu gertakariaren barnean.
- **Elkarlana:** eragileen artean ezinbestekoa, hizkuntza berreskuratzearen erronka irabazteko.
- **Iraunkortasuna:** urte osoan euskarazko aktibitateak eskaintzeko.

Tailerrak, bisita gidatuak, iniziazioak, ikuskizunak, bestak, formakuntzak, hitzaldiak, emanaldiak…

Mintzalasai hori da ere: ttipiek eta handiek urte osoan euskaraz gozatzeko aktibitate eskaintzaren erakusleihoa.

Irailaren 1etik 30era, 75 hitzordu antolatu ditugu. Elkarrekin topo egiteko aukerarik ez da faltako!

**Mintzalasai on denei!**

## BIENVENUE A LA NOUVEAUTE

Cette année, c'est dans un lieu atypique que nous avons souhaité vous présenter la 7ème édition des journées de l'euskara au BAB.

Nous sommes ici à TOO LATE ESCAPE GAME qui est le premier à avoir innové en proposant des jeux d'évasion en euskara.

Dans un jeu d'évasion, les joueurs sont invités à coopérer pour sortir de la salle dans un temps défini, grâce aux conseils d'un game master.

Cette activité est à découvrir pour la première fois en euskara pendant Mintzalasai, mais elle sera pérennisée aussi au-delà du mois de septembre sur inscription.

Ces 3 ingrédients s'appliquent parfaitement à Mintzalasai :

- **Innovation :** avec des activités originales en euskara pour un évènement qui s'ancre en milieu urbain.
- **Coopération :** indispensable entre les acteurs pour relever le défi de la réappropriation linguistique.
- **Pérennité :** avec une offre d'activités en langue basque tout au long de l'année.

Ateliers, visites guidées, initiations, spectacles, fêtes, formations, conférences, projections… Mintzalasai est aussi une vitrine l'offre d'activité qui permet aux petits et aux grands de profiter de l'euskara tout au long de l'année.

Avec 75 rendez-vous du 1er au 30 septembre, les occasions de nous croiser ne manqueront pas.

**Bon Mintzalasai à tou.te.s !**



# ELKARREKIN LORTUKO DUGU

Mintzalasairen helburua – bere maila apalean – hiriko ingurunean euskara biziberritzeko ekarpena egitea da.

Badu orain 7 urte belaunaldi arteko egun herrikoiak antolatzen ditugula, euskal hiztunek eta euskara ikasleek hizkuntza erabiltzeko parada izan dezaten eta kuriosek ezagutzeko aukera izan dezaten.

Hala, 75 aktibitateren inguruan, lurraldeko 45 eragile (2012an 15 ginen) eta 90 laguntzaile mobilizatzen ditugu. Gero eta jende gehiago bada, eta, 2017an, 7000 parte hartzaile baziren (hasierako kopurua hirukoiztu da).

**BAB: lurralde estrategikoa**
Hastapenean, Mintzalasai Biarritzeko gertakaria zen. Egun, BAB osora hedatu da. Ipar Euskal Herriko herritarren % 40 hiru hiri horietan bizi da eta euskarak bertan berriz errotzeko zailtasunak ditu (familia transmisiorik ez kasik, eskolan irakaskuntza tasa ahula, hizkuntza paisaia gehienik elebakarra…).

Estrategia egokitua eta gure indarren metaketa ezinbestekoak izango dira etorkizunean.

**Ez da halabeharra**
Azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzek honakoa erakutsi dute: belaunaldi gazteen artean hiztunen emendatzea, eta, bereziki, hamarkadetako beheraldiaren ondotik hiztun kopuru osoaren egonkortzea. Erronka ez da irabazia, baina, helburua bete daiteke!

BABn ere ez dezagun igurika egoera bere baitarik hobetzea. Egoerari buelta emateko gure ahalmen indibidual eta kolektiboan sinets dezagun. 2017ko azaroan, BAM ekimenak erakutsi zuen ahalik gabe ere gauzak alda zitezkeela.

# UNE LANGUE QUI RASSEMBLE

L'objectif de Mintzalasai est de contribuer, à sa modeste échelle, à la revitalisation de l'euskara en milieu urbain.

Nous organisons depuis 7 ans des journées populaires et intergénérationnelles afin de donner l'occasion aux locuteurs et apprenants de pratiquer la langue, mais également aux curieux de la découvrir.

Nous mobilisons pour cela 45 opérateurs du territoires (nous étions 15 en 2012) et 90 bénévoles, autour de l'organisation de 75 activités. La fréquentation a triplé pour atteindre près de 7000 participants en 2017.

**BAB : un territoire stratégique**
Initialement, Mintzalasai est un évènement biarrot. Il investit maintenant l'ensemble du BAB ou se concentre 40% de la population. L'euskara peine à s'y réenraciner : transmission familiale inexistante, faible taux d'enseignement, paysage linguistique essentiellement unilingue…

Une stratégie adaptée et une accumulation de nos énergies seront indispensable à l'avenir.

**Il n'y a pas de fatalité**
Les résultats de la dernière enquête sociolinguistique font état d'une augmentation des locuteurs auprès des jeunes générations et surtout une stabilisation du nombre absolu de locuteurs après des décennies de déclin. Le défi est loin d'être gagné, mais il est surmontable.

Au BAB non plus, n'attendons pas que la situation s'améliore d'elle-même. Ayons confiance dans notre capacité individuelle et collective à faire changer les choses. En novembre 2017, l'initiative BAM a montré que même sans moyens, on pouvait faire bouger les choses.



# INFORMATIONS PRATIQUES

Mintzalasai irailaren 1etik 30erat iraganen da Baiona, Angelu eta Miarritzen.

**Egitaraua irakurgarriagoa.** 6 familia handitan banatua da aurtengo programazioa. Haurrekin euskaraz partekatzeko momentuak, haurrei bakarrik zuzendutako aktibitateak, helduentzako hitz orduak, gogoetaldiak, eskola jarduerak eta momentu azkarrak. Marion aintzirako besta irailaren 30ean izanen da, igandez (euskara familian eta lagunartean).

**Gertakari irekia.** Euskara denentzat eskuragarri izatea nahi dugu. Horregatik hitz ordu gehienak prezio librean dira. Aktibitate bakoitzean jendeak ekarpen librea egiteko aukera izanen du, haien ahalen arabera.

**Hitz ordu hurbilerrexak.** Gure lehen helburua euskaldunei eta euskara ikasten dutenei euskara praktikatzeko aukerak eskaintzea da. Maila guziei egokituak dira.
Euskara ez dakitenentzat: euskara iniziazioak, haur euskaldun eta guraso erdaldun arteko partekatze momentuak…

**Tokiak gorde.** Harrera baldintza onak segurtatzeko, toki kopurua mugatua da.
Erreserbatzeko: www.mintzalasai.eus - 06.40.79.84.62. – mintzalasai@gmail.com.

**Euskoa maite dugu!** Tokiko euskal moneta onartzen eta aholkatzen dugu.

# INFORMATIONS PRATIQUES

Mintzalasai 2018 se déroulera du 1er au 30 septembre à Bayonne, Anglet et Biarritz.

**Un programme plus lisible.** Organisé en 6 familles pour mieux se repérer, des activités de partage entre enfants bascophones et adultes qui ne le sont pas forcément chaque samedi matin, des rendez-vous pour les enfants, d'autres pour les adultes, des moments de réflexion, des activités scolaires et des temps forts. La grande fête de l'euskara au Lac Marion le 30 !

**Un évènement abordable.** Afin de rendre l'euskara accessible au plus grand nombre, la plupart des prix sont libres. Les participant.e.s pourront soutenir l'évènement en apportant leur contribution en fonction de leurs moyens.

**Des activités accessibles.** Les rendez-vous sont avant tout une occasion offerte aux bascophones et apprenants de pratiquer l'euskara. Ils sont ouverts à tous les niveaux. Des moments d'initiation sont également organisés pour celles et ceux qui ne parlent pas (encore) le basque.

**Pensez à réserver !** Afin de garantir une qualité d'accueil, les places sont limitées. Réservation : www.mintzalasai.eus - 06.40.79.84.62. - mintzalasai@gmail.com.

**On aime l'Eusko.** Mintzalasai se vit aussi avec la monnaie locale du Pays Basque.

www.**mintzalasai**.eus

Eduki aberatsagoa biltzen du atari berriak. Mintzalasai gertakariaz gain, erabiltzaileak BABn euskaraz bizitzeko agenda, euskararen eragileen aurkitegia eta mapa eta hainbat baliabide ere atzemanen ditu. Datozen hilabeteetan garatuko da berri paper eta aplikazio berezitu batekin.

www.**mintzalasai**.eus

Le site internet a été mis à jour pour offrir une prestation plus large. En plus des informations liées à Mintzalasai, l'utilisateur y trouvera un agenda détaillé de l'euskara au BAB, une cartographie et un annuaire complet des opérateurs linguistiques du territoire et de nombreuses ressources…



# RETROUVEZ EN LIGNE // ATARIAN

> L’édito des organisateurs + Le programme détaillé + Les formulaires pour s’inscrire + Les infos pratiques + Un annuaire des opérateurs linguistiques + Des ressources…

**www.mintzalasai.eus**

> Antolatzaileen aitzin solasa + Egitaraua zehatza + Izen emateko inprimakiak + Informazio praktikoak + Eragileen aurkitegia + Baliabideak…

# CHIFFRES CLES // ZENBAKITAN

**MINTZALASAI 7**

**30** egun / jours
**75** hitz ordu / activités
**90** laguntzaile / bénévoles
**45** elkarte antolatzaile / associations organisatrices
**30** egitura parte hartzaile / structures associées

# SLOGGAN // LEMA

**L’euskara, avec plaisir !**
**Uste baino gehiago girelako**

# FREQUENTATION // PARTE HARTZEA




# PARTENAIRES // PARTAIDEAK

Euskararen erakunde publikoa – Office public de la langue basque
BIARRITZ
Bayonne – BAIONA-PAYS BASQUE
eke-icb – EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA – INSTITUT CULTUREL BASQUE

Maison des associations / Elkarteen Etxea - Rue Darritchon karrika - 64200 BIARRITZ
06.16.71.06.31 - mintzalasai@gmail.com - www.mintzalasai.eus
LICENCE ENTREPRENEUR DE SPECTACLE 3-1090846